

BEZEROEKIKO HARREMANAK


Gure bezeroekin izango ditugun harremanak **zuzenak eta automatizatuak** izango dira. Guk geu, enpresaren sortzaile garenok izango baikara gure proiektuaren aurkezleak inguruko eskoletan eta udaletxeetan hitzaldiak emango ditugulako eta sare sozialen bitartez aplikazio hau ezagutzera eramango dugulako. Gure psikologoak bezeroekin zuzenean hitz egingo dute eta hori harreman zuzena izango da. Aplikazio barruan atal batzuk egongo dira non harremana automatizatu izango den.

Aplikazio bat egitea aukeratu dugu gaur egun **jende guztiak** mugikorra edo ordenagailuren bat duelako, beraz, haiek zerbitzu hau erabiltzeko aukera erraztu nahi diegu. Hau da, nahi duten lekutik zerbitzua kontsumitu ahal izango dute aplikazio baten bitartez delako. Gainera, jende askok ez duenez aukera psikolo kantsulta bat ordaintzeko, guk zerbitzu hau eskaintzen diegu beste modu batean.



Erabiliko dugun bezero-harremana - laguntza pertsonala izango da. Hau da, bezero bakoitzari **tratamendu pertsonalizatua** eskainiko diogulako eta lehen esan dugun bezala, **automatizatutako zerbitzua** izango da aplikazioan bertan zure beharrianak asetzeko erregistratu behar izango zarelako.

Gure bezeroak **chat** baten bitartez haien artean harremanetan jarri daitezke eta -beraien artean hitz egin eta gomendio ezberdinka jaso eta entzuteko aukera izango dute.. Nahi izatekotan pertsona zehatz batekin hitz egin ahal izango dute edo talde bat osatu nahi badute nahi duten pertsonekin, egingo ahalko dute. “Whatsapp” aplikazioaren antzekoa izango da .



Administrazio Publikoarekin eta enpresa pribatuekin izango dugun - harremana zuzenean izango da, haiekin kontaktuan jarriko gara telefonoz edota bilera presentzialen bidez.

Gure motibazioa izango da ahalik eta **bezero gehien lortzea eta dauzkagunak mantentzea**. Honekin nahi duguna zera da: ahalik eta **pertsona gehieni laguntze eskaintzea** eta gure psikologoekin gauza eta esperientzia berriak ikastea.